

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespina ematea udal jabari publikoaren erabilera pribatuaren eta aprobetxamendu bereziaren 2020ko tasa ordaindu behar dutenen eroldari

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut:

Alkateak 2020ko abenduaren 21eko ebazpen bidez (2020/478 Dekretua), erabaki zuen behin-behineko onespina ematea jabari publikoaren erabilera pribatuaren eta aprobetxamendu bereziaren 2020ko tasa ordaindu behar dutenen eroldari (2020/23/S903 espedientea), eta 2021eko urtarrilaren 8ko ALHAOn (78. zk.) argitaratu zen. Dekretu horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta jendaurrean jartzen da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoak betetzeko.

2020ko otsailaren 17tik apirilaren 19ra (biak barne) arteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, jabari publikoaren erabilera pribatuaren eta aprobetxamendu bereziaren tasaren ordainagiriak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Elexondo kalea, 21) ordaindu ahal izango dute zerga zorra, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:00etara, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga Bilketarako Araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritz; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2021eko otsailaren 2a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA